

3.2 GAIAREN LANKETA

> Lehen, egunero, orain, gero



- Joxeren gutuna
 - Begira zer egin dudan gaur

Helburuak

- Egunean bertan egindakoa kontatzen ikastea.
- Eredu bat jasotzea antzekoa egin ahal izateko.
- Joxerekin harremanetan egotea.

Prozedura

- **Lehenik eta behin**, Joxek zerbait bidali diela esan.
- Joxek bidalitako bideoa ikusi.
- Bideoan ikusitakoa umeekin komentatu.
- Ulertu duten ikusteko galderak egin.
- Airamek egin duena egiten ikasiko dutela esan.
- **Jarraian**, Airamen eguna ohikoa iruditu zaien galdetu.
- Bikoteak egin eta bikote bakoitzari Airamen egunaren transkripzioa eman.
- Umeei Airamen eguna gure ohituretara ekartzeko eskatu. (adibidez, galdetu eurek goizean afaltzen duten edo arratsaldean joaten diren eskolara)
- **Bukatzeko**, talde handian denen artean zuzendu.

Oharrak

- Nahikoa da bideoa behin ikustea.
- Umeei argi esan hori izango dela hurrengo lana: euren egun bat kontatzea.
- Gaiaren lanketarekin bukatzean, berriz ikus daiteke bideoa, umeei zenbat ikasi duten ikusi eta euren burua baloratzeko.